

KANPO-MERKATARITZAREN ESTADISTIKA (KAMEE). 2021eko uztaila

Esportazioek % 17,7 egin zuten gora, 2021eko uztailan, Euskal AEn

2021eko uztailera arteko ondasunen esportazioen metatua 14.653 milioikoa izan da; urte arteko % 22,9ko igoera izan du

Euskal AEn ondasunen **esportazioek** % 17,7ko igoera izan zuten **2021eko uztailan**, Eustaten datuen arabera. Oro har, esportazioek 2.186 milioi euroko balioa izan zuten; aurreko urtean, 1.857 milioi eurokoa izan zuten.

Nabarmenezkoa da “*Metal eta haien manufakturen*” igoera (% 46,0) eta “*Produktu mineral eta energetikoena*” (% 52,7). Nabarmenezko beste hazkuntza batzuk “*Produktu kimikoak*” (% 52,3) eta “*Plastikoak eta kautxua*” (% 20,9) izan ziren. “*Garraio-materiala*”ren esportazioak, berriz, 33,9 milioi euroan egin zuten behera (–% 5,8), 2020ko uztailaren aldean.

Inportazioek % 25,1eko hazkuntza izan zuten 2021eko uztailan, 1.675 milioi eurekin. Inportazio **energetikoek** % 14,2 egin zuten gora eta **ez-energetikoek**, % 27,6.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2021 Uztaila

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Uztaila			Uztaila		
	2020	2021	Δ %	2020	2021	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	1.857.204	2.186.203	17,7	1.339.218	1.675.354	25,1
PRODUKTU ENERGETIKOAK	72.108	113.981	58,1	253.209	289.198	14,2
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.785.096	2.072.222	16,1	1.086.009	1.386.156	27,6
URTEKO METATUA	11.918.587	14.652.549	22,9	9.173.488	11.376.668	24,0
PRODUKTU ENERGETIKOAK	644.423	671.667	4,2	1.830.277	2.145.415	17,2
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	11.274.165	13.980.882	24,0	7.343.211	9.231.254	25,7
ARABA/ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	663.956	693.103	4,4	328.589	372.224	13,3
URTEKO METATUA	3.567.501	4.294.029	20,4	2.024.390	2.621.071	29,5
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	639.224	841.748	31,7	737.397	942.838	27,9
URTEKO METATUA	4.532.057	5.818.470	28,4	5.119.770	6.188.685	20,9
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	554.024	651.352	17,6	273.232	360.293	31,9
URTEKO METATUA	3.819.029	4.540.050	18,9	2.029.327	2.566.913	26,5

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Lurraldeak

Esportazio-hazkuntza handiena **Bizkaiak** izan zuen (% 31,7), “*Metalen eta haien manufakturen*” igoera (% 40,4), “*Produktu kimikoena*” (% 65,6), “*Koipe eta olioena*” (% 1.038,5) eta “*Produktu mineral eta energetikoena*” (% 53,5) dela eta. Hazkuntza **Gipuzkoan** % 17,6koa izan zen, “*Metalen eta haien manufakturen*” igoera (% 69,0) dela eta; 62,8 milioi egin zuten gora, eta, hil horretan, lurralde horrek esportatutako guztiaren % 23,6 izan ziren. **Araban** ere, balantzea positiboa izan zen; izan ere, esportazioek % 4,4 egin zuten gora, “*Metalen eta haien manufakturen*” igoera (% 33,3) eta

“Material, makin eta aparatu elektrikoek” igoera (% 29,8) dela eta, nahiz eta “Garraio-materialak” behera egin zuen pixka bat (–% 2,8) eta aurreko urteko hil berean baino 11,7 milioi gutxiago izan.

Inportazioak direla eta, **Gipuzkoan** izan zen igoerarik handiena (% 31,9), “Metalen eta haien manufakturen” eraketak areagotu zirelako (% 42,8), bai eta “Garraio-materialarenak” (% 240,1) eta “Paperarenak eta haren manufakturenak” (% 53,1) ere. **Bizkaiko** bilakaera % 27,9koa izan zen, funtsean gora egin zutelako “Metalek eta haien manufakturek” (% 58,9); **Arabán** ere balantzea positiboa izan zen, ondasunen eraketak % 13,3 egin baitzuen gora “Elikagaien” aurrerapenaren (% 91,2), “Plastiko eta kautxuenaren” (% 41,9) eta “Metalen eta haien manufakturenaren” (% 22,4) ondoren.

Jarduera-adarrak A 86

Jarduera-adar garrantzitsuenak aztertuta, eta esportazioak direla eta, nabarmentzekoa da uztailan “Produktu siderurgikoek” gorakada (% 68,6), “Kutxuaren produktuarenak” (% 20,6) eta “Kokeria eta petrolio-fintzeenak” (% 54,9), bai eta “Motordun ibilgailuen fabrikazioarekin” zerikusia duten produktuen esportazioen beherakada (–% 6,0) ere. Azken jardueradar horrek –lehena rankingean– jaitsi egin da Gipuzkoan (–% 23,6; aurreko urtean baino 19,6 milioi gutxiago), bai eta Arabán ere (–% 3,2), baina gora egin du Bizkaian, % 0,5.

Inportazioak direla eta, hil horretan jardueradar garrantzitsuenak, “Produktu siderurgikoak” (gutzizkoaren % 11,7), % 86,0ko hazkuntza izan baitute; rankingeko bigarrenak, “Erauzketa- eta petrolio-industriak”, berriz, % 22,8 egin du atzera.

Euskal AEko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak (milaka euro) (p). 2021eko uztaila

	2020	2021	2021 %	2021/2020 (%)
Guztira	1.857.204	2.186.203	100	17,7
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	218.029	188.275	8,6	-13,6
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	178.726	158.178	7,2	-11,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	104.671	142.463	6,5	36,1
Petrolioaren olio finduak	54.294	100.307	4,6	84,7
Kautxuzko pneumatiko berriak	74.638	87.561	4,0	17,3
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	21.512	57.378	2,6	166,7
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	44.060	48.360	2,2	9,8
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	19.928	32.912	1,5	65,2
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	35.673	32.192	1,5	-9,8
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraigailuak...	11.619	31.272	1,4	169,1
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	15.420	29.929	1,4	94,1
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	23.276	27.752	1,3	19,2
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	10.905	26.365	1,2	141,8
Beroan ijaztatutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalera	3.335	24.445	1,1	633,0
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	17.339	24.376	1,1	40,6
Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	0	22.759	1,0	-
Burdina edo altzairuko gainerako manufakturek	18.070	22.663	1,0	25,4
Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	11.919	20.807	1,0	74,6
Xafien bidez eraikitutako barrak, profilak, tutuak eta fundicioen-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	9.556	19.939	0,9	108,7
Ardoa, mahats freskoarena	15.121	19.766	0,9	30,7
Ontziak eta paketatutako aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatutako makinak	15.023	18.532	0,8	23,4
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	17.134	17.611	0,8	2,8
Metal arruntzeko giltzarra, sarraila, morroilo eta giltzak	16.201	17.157	0,8	5,9
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	22.969	16.800	0,8	-26,9
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	15.458	16.670	0,8	7,8

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Partida garrantzitsuenak

Xehetasunak emateko, tradizioan garrantzitsuenak izan diren hiru arantzel-partidetako esportazioen urte arteko jaitsierak egiaztatu dira: “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (–% 13,6), “Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak” (–% 11,5) eta “Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdina edo altzairuzkoak” (–% 9,8). Beste muturrean, honako hauek daude: “Ibilgailu automobilentzako zati eta osagarriak” (% 36,1), “Petrolio-olio finduak” (% 84,7), “Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profila”k (% 166,7), “0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak”

eta “Izogailuak, eskailera mekanikoak, garraiatzaileak, etab.” (% 65,2ko eta % 196,1eko hazkuntzak, hurrenez hurren).


Inportazioen kasuan, nabarmentzekoa da “*Petrolio edo mineral bituminosozko olio gordin*”etan izan dugun inportazioen beherakada (–% 27,5) eta honako hauetan izan dugun igoera handia: “*Petrolio olio finduak*” (% 903,8), funtsean, “*Gasolioa*” eta, neurri txikiagoan, “*Fuelolioa*”. Halaber, potentziario nabarmena egon da inportazioetan honako hauetan: “*Beroan laminatutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalerakoak*” (% 169,2), “*Soja-babak, baita hautsiak ere*” (% 110,6), “*Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko txatarra*” (% 127,0) eta “*Metegailu elektrikoak eta haien zatiak*” (% 306,4)

Xede diren bezeroak

Uztailean, bost herrialde (Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Belgika eta Ameriketako Estatu Batuak) izan dira Euskal AEn bezero nagusiak, Euskal esportazioen guztizkoaren % 51,1 berenganatu baitute. Haietako hiru EB27koak dira; entitate horri % 62,0 dagokio.

Euskal AEn kanpo-merkataritzaren bilakaera

Miloi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Euskal AEn kanpo-merkataritza. Urteko metatua

2021eko lehen zazpi hiletan, Euskal AEn ondasunen esportazioek % 22,9 egin dute gora (2.734 milioi gehiago aurreko urtean baino), eta 14.652,5 milioi eurora iritsi dira. Hala ere, zifra hori 2019ko –pandemiaren aurreko urtea– aldi bereko zifra baino are txikiagoa da, orduan 15.198 milioi eurokoa izan baitzen.

Inportazioen metatua 11.376,7 milioi eurokoa izan zen, alegia, aurreko ekitaldiko aldi berean erregistratutakoa baino 2.203 milioi gehiagokoa (% 24,0ko igoera).

Euskal AEko kanpo-merkataritzak, 2021eko lehen zazpi hiletan, 3.276 milioi euroko saldo positiboa izan du % 128,8ko estaldura-tasa.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Urtarrila - Uztaila 2021

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urtarrila - Uztaila			Urtarrila - Uztaila		
	2020	2021	Δ %	2020	2021	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	11.918.587	14.652.549	22,9	9.173.488	11.376.668	24,0
PRODUKTU ENERGETIKOAK	644.423	671.667	4,2	1.830.277	2.145.415	17,2
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	11.274.165	13.980.882	24,0	7.343.211	9.231.254	25,7
ARABA/ÁLAVA	3.567.501	4.294.029	20,4	2.024.390	2.621.071	29,5
BIZKAIA	4.532.057	5.818.470	28,4	5.119.770	6.188.685	20,9
GIPUZKOA	3.819.029	4.540.050	18,9	2.029.327	2.566.913	26,5

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Lurraldeak

Bizkaia nabarmena izan zen aldi horretan, haren esportazio-jardueragatik; izan ere, urte arteko % 28,4ko hazkuntza izanik, ondasunen salmenten buru da (5.818 milioi euro). **Arabak** % 20,4ko hazkuntza izan du (4.294 milioi), eta **Gipuzkoak**, % 18,9koa (4.540 milioi).

Inportazioak direla eta, **Bizkaiak** % 20,9ko hazkuntza izan zuen, eta 6.189 milioi euroko ondasunak inportatu zituen; ondoren, **Arabak** 2.621 milioiko eta % 29,5eko igoera izan zuen. **Gipuzkoak** 2.567 milioikoa izan zuen, eta, hala, inportatzaileen rankingaren azken posizioan dago.

Produktuak

Produktu mota kontuan hartuta, *Produktu ez-energetikoen* (urte arteko 2.707 milioiko hazkuntza) lagundu diote gehien esportazioen hazkuntzari; *Produktu energetikoen* (aurreko urtean baino 27 milioi gehiago) sustapen txikia eman diote hazkuntza horri.

Bestalde, *Produktu energetikoen* inportazioek % 17,2 egin zuten gora, eta *Produktu ez-energetikoenek*, % 25,7.

Xede diren herrialdeak

Euskal esportazioen xede diren herrialdeen rankingeko buru, aldi honetan, Alemania da (esportatutako guztiaren % 16,9), ondoren Frantzia (% 15,8), Erresuma Batua (% 6,9), Estatu Batuak (% 6,9) eta Belgika (% 5,5). Bost herrialde horiek Euskal esportazioen erdia hartzen dute (% 51). Ehuneko hori ez dago EB27rako erregistratutakotik (% 63,8) urrun.

Jarduera-adarrak A 86

Esportazio-bolumena dela eta jarduera-adar garrantzitsuenen artean “*Siderurgia*”rekin zerikusia duten produktuen igoera nabarmentzen da (% 36,8), zeinak gainditu egiten baitu ia 431 milioi euroan aurreko urtean esportatutakoa eta 1.600 milioi eurora iritsi baita.

Halaber, nabarmen hazi dira “*Kautxuzko produktuak*” (% 24,5), “*Erabilera orokorreko makinariak*” (% 14,6) eta “*Artikulu metalikoak*” (% 14,2).

Esportazio-bolumen handieneko adarra “*Motordun ibilgailuen fabrikazioarekin*” zerikusia duten produktuen da (3.299 milioi eta guztizkoaren % 22,5), zeinak, 2021. urteko zazpigarren hila amaitzean, % 21,3ko hazkuntza metatua erregistratu baitu, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.

Inportazioetan, nabarmenena da garrantzitsuenak, “*Erauzketa-industriak eta mineralak*”, % 4,2 egin duela atzera, eta inportazio-bolumenari dagokionez atzetik dituenek nabarmen egin dutela gora, besteak beste “*Siderurgiak*” (% 38,1), “*Motordun ibilgailuen fabrikazioak*” (% 21,1) eta “*Erabilera orokorreko makinariak*” (% 20,4).

Partida garrantzitsuenak

Xehetasunak ematean ikusten da 25 arantzel-partida nagusien artean bitan baino ez direla egon hazkuntza-tasa negatiboak: “*Petrolio-olio finduak*” (–% 0,5) eta “*Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdina edo altzairuzkoak*” (–% 26,6); gainerako arantzel-partidetan, tasak positiboak izan dira, eta, duten garrantzia eta pisu berezia kontuan hartuta, nabarmentzekoak dira “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” (% 18,4), “*Salgaiak garraiatzeko automobilak*” (% 18,6), “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” (% 18,7) eta, zehazki, “*Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak*” (% 39,5).

Euskal AEko arantzel-partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Metatua urtarrila - uztaila 2021

	2020	2021	2021 %	2021/2020 (%)
Guztira	11.918.587	14.652.549	100	22,9
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	1.097.331	1.299.453	8,9	18,4
Automobilentzako zati eta osagarriak	728.795	1.016.822	6,9	39,5
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	753.725	893.852	6,1	18,6
Kautxuzko pneumatiko berriak	518.457	615.192	4,2	18,7
Petrolioaren olio finduak	573.002	569.942	3,9	-0,5
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	265.816	358.430	2,4	34,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	198.149	353.919	2,4	78,6
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	113.471	249.009	1,7	119,4
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	163.395	212.304	1,4	29,9
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	146.548	194.412	1,3	32,7
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	240.838	176.801	1,2	-26,6
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	121.118	155.587	1,1	28,5
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	96.386	153.080	1,0	58,8
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	102.130	151.561	1,0	48,4
Landu gabeko aluminioa	56.843	149.524	1,0	163,0
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	68.838	138.336	0,9	101,0
Ardoa, mahats freskoarena	105.838	131.205	0,9	24,0
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	110.035	126.248	0,9	14,7
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	85.430	123.316	0,8	44,3
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...	112.886	122.381	0,8	8,4
Ontziak eta paketatzeko aparatuek garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	89.407	117.664	0,8	31,6
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	92.796	117.535	0,8	26,7
Metal arruntzeko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	102.380	116.063	0,8	13,4
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	92.633	115.654	0,8	24,9
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikorako kobre anodoak	109.712	114.497	0,8	4,4

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62